

EKARPENAK EGITEKO ARGIBIDEAK

1 - GEHIENEZKO LUZERA:

20 orri (43.000 karaktere inguru, hitz-tarteak eta oin-oharrak barne)

2 - FORMATU OROKORRA:

- Bazterrak:

- Goikoa eta behekoa: **2,5 zm**

- Albokoak: **3 zm**

- Paragrafoen arteko tartea:

- Aurrekoa: **0 puntu**

- Atzekoa: **8 puntu**

- Testu nagusia: **Times New Roman, 12, 1'5-ko lerroartea, lerrokatze justifikatua, sangria frantsesarekin**

- Oin-oharrak: **Times New Roman, 10, 1'5-ko lerroartea, lerrokatze justifikatua, sangria barik**

3 - LETRA LODIA ETA ETZANA NEURRIZ ERABILI

4 - EDUKIA ETA FORMATU PARTIKULARRA:

- **Titulua:** letra larri eta lodiz, lerrokatze zentratua

- **Izen-abizenak:** lerrokatze zentratua

- **Zentroa/unibertsitatea:** lerrokatze zentratua

Ekarpena ikerketa proiektu edo kontratu baten eremuaren barruan kokatuz gero, adierazi oin-ohar batean izartxo (*) baten bidez

- **Laburpena:** 150 hitz

- **Hitz gakoak:** 5 gehienez

- **Aurkibidea:** dena jarraian, paragrafo bakar batean

- Adibidea:

I. ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA. 1. Europar eremua. 1.1. Zigorra indibidualizatzeko ereduak. 1.1.1. Indibidualizazio kontzeptua. 1.1.2. Zigor motak. 1.1.2.1. Iraunaldi luzeko espetxealdia. 1.2. Zigor zehaztuak eta zehaztugabeak. 2. Zigor Kodeko indibidualizazio ereduak. II. ZIGOR ZEHAZTUGABEEN ZILEGITASUN ARAZOAK

- **Ekarpen osoa**

EKARPENAK EGITEKO ARGIBIDEAK

5 - EGITURA:

Ekarpenaren testua jarraian azaldutako formatuaren arabera egituratuko da:

- Lehenengo eta behin, erabili **zenbaki latindarrak letra larriz** (I, II, III...) eta jarraian idatzi atalaren titulua **letra larri, lodi eta 12 puntuko tamainaz** idatzi.
- Ondoren, erabili **zenbakiak** (1, 2, 3...) aurreko atalaren barruko edukia antolatzeko, eta jarraian idatzi atalaren titulua **letra xehe, lodi eta 12 puntuko tamainaz** idatzi.
- Gero, erabili zenbaki konposatuak (1.1., 1.2., 1.3...) aurreko azpi-atalaren barruko edukia antolatzeko, eta jarraian atalaren titulua **letra xehe, biribila (ez lodia) eta 12 puntuko tamainaz** idatzi.
- Beharrezkoa izanez gero, erabili **zenbaki gehiago** azpi-atalak gehitzeko (1.1.1, 1.1.2, 1.1.3... / 1.1.1.1, 1.1.1.2, 1.1.1.3 ...), eta jarraian titulua **letra xehe, etzana eta 12 puntuko tamainaz** idatzi.

Adibidea:

I. ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA

1. Europar eremua

1.1. Zigorra indibidualizatzeko ereduak

1.1.1. Indibidualizazio kontzeptua

1.1.2. Zigor motak

1.2. Zigor zehaztuak eta zehaztugabeak

2. Zigor Kodeko indibidualizazio ereduak

II. ZIGOR ZEHAZTUGABEEN ZILEGITASUN ARAZOAK

EKARPENAK EGITEKO ARGIBIDEAK

BIBLIOGRAFIA- ETA JURISPRUDENTZIA-AIPAMENAK

Aipua testuan zehar sartu behar dira, **oin-oharretan**. Ez zaio gehituko bibliografiarentzako **amaierako atalik**.

a) Liburuen aipamenak: adierazi egilearen izenaren lehenengo letra eta puntu eta jarraian, abizenak letra biribilean. Ondoren, puntu eta jarraian, idatzi titulu osoa letra etzanean eta, beharrezkoa bada, liburuki edo zatia letra biribilean. Gero, aipatu argitalpen-zenbakia (2.etik aurrera), argitaletxea, lekua eta urtea. Azkenik, zehaztu orrialde zenbakiak *p.* edo *pp.* erabiliz.

- Adibidea: T. Walker. *Derecho Penal Europeo*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2009, pp. 4-8.

b) Obra kolektiboaren aipamenak: erabili aurreko atalaren formatu bera, baina jarri kapituluaren titulua komatxo artean eta letra biribilean, eta jarraian "en" gehi obra kolektiboaren titulua letra etzanez.

- Adibidea: R. Anderson. "The state of prisons in England and Wales", en *Punishment and Society*, Volume I, Oxford, 2015, pp. 345-367.

c) Aldizkari artikuluen aipamenak: erabili b)-ren formatu bera, baina gehitu artikuluen zenbaki, liburuki, urtea eta orrialdeak.

- Adibidea: C. Rose. "RIP the IPP: a look back at the sentence of imprisonment for public protection", en *Journal of Criminal Law*, Number 4, Volume 76, 2012, pp. 303-313.

d) Jurisprudenzia aipamenak: adierazi erabaki judiziala hartu duen organoa eta, behar izanez gero, epaimahai konkretua parentesia artean. Puntu eta jarraian, aipatu erabaki mota, erreferentzia zenbakia eta ematearen data. Azkenik, egotekotan, jarri kasuaren izena parentesia artean.

- Adibideak: TEDH (Gran Sala). Sentencia de 9 de julio de 2013 (Caso Vinter y otros c. Reino Unido).

TS (Sala de lo Penal). Sentencia nº 215/2012 de 12 de febrero de 2012.

Ponentziak eta hautatutako ekarpenak Tirant lo Blanch argitaletxearen bitartez argitaratuko dira; hortaz, gomendatzen dugu, egokia denean, bere jurisprudenzia datu basea erabiltzea eta aipamen bakoitzean erabakiari dagokion erreferentzia (TOL) sartzea.

- Errepikapenak ekiditeko asmoz, erabili "*op. cit.*" letra etzanez obra edota erabaki bera behin baino gehiagotan aipatzerakoan.

- Adibidea: T. Walker. *op. cit.*, pp. 8-12.